


# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



HERRI KONTSEILUA.

## ***Igeldoko zabalpena***

Donostiako Plan Orokorren berriztapenak, Igeldori ekarritako aldaketa nagusia, IG-07 "Igeldoko Zabalpena", deituriko lur eremuaren kalifikazioa da zalantzarik gabe.

Bertan, kasko inguruko 27.780 m<sup>2</sup> sartzen dira, horietatik 10.880 m<sup>2</sup> "E-120" errepide berriarentzako, eta beste 16.900 m<sup>2</sup> "A-300" etxebizitzak eraikitzeko.

Hurrengo urteetan garatuko den eremu honek, herriaren aldaketa sakona ekarriko du, eta ondorio garrantzitsuenak, hauek izango dira:

\* Herriko plaza ingurua sendotu, egoitza guneak eta zerbitzu berriak sortuz.

\* Ia 70 etxebizitza berriak, hauetako %65a babestuak (VPO) izango direlarik.

\* "Bariante" deituriko errepide berria, trafikoa herritik kanpora atera eta ingurua txukundu. Gure eskuetan dago, baldintza eta epe egokietan eraikitzea, gure beharren arabera, eta ahal den neurrian bertakoentzako.

Horretarako, Herri Kontseilutik, elkarte bat sortzearen beharra ikusten dugu, berezitasun eta helburu hauekin:

### ***Itsas Aurre gure eskuetan***

Herri Kontseiluak Itsas Aurre etxearen gestioa bere eskuetan dauka Donostiako Udalaren baimena jaso eta gero.

. Emate hori urte honen hasieran sinatu da eta honi esker Itsas Aurre igeldotarren esku geratu da.

Hemendik aurrera, etxea mantentzea Herri Kontseiluaren gain geratzen da, hau da, ura, argia eta hondatutako materiala guk oradiandu beharko dugu. Beraz, Lehen jendea etxe barruan kontu handiz ibiltzea eskatzen baldin bazen are eta gehiago orain.

Jakina denez, eskolak ere egunero erabiltzen du Itsas Aurre etxea zenbait gauzetarako. Hori dela eta, Herri Kontseilutik bilera bat eskatu zaie Udaleko ordezkariari hau kontutan hartu dezaten eta etxea mantentzearen baldintza hori aldatua izan dadin.

- Elkarte zabala, eraikuntza hauetan interesa duten igeldotar guztieri irekia.

- Partaidetza bikoitza, nola kapitalak ala kalifikatutako lur zatiak inguratuz.

- Horrela sorturiko elkarteak, planaren garapena aurrera eramango luke, inolako irabazirik gabe, eta bere bazkideen mesedetan.

- Eraikuntza, multzo txikietan antolatu, bazkideen beharretara egokitu, baldintza eta epeak kontrolatuz, behar baino lehen agortu gabe.

Esan liteke, zezena aurrean dugula, eta guri dagokigu erabakitzea, adarretatik heldu edo albotik pasatzen uztea. Hau, Igeldotar guztion erabakia izan behar du eta beraz, gai garrantzitsu honen inguruan aritzeko Herri Batzarra konbokatu du Herri Kontseiluak.

Ekainaren 15ean, goizeko 11,15 etan burutuko den Batzar honetara igeldotar guztiak partehartu dezaten gonbidapena luzatzen da.

Honetan Igeldoko Kaskoaren gaia aztertzeaz gain, frontoiarekin izandako arazoei buruz hitzegingo dugu.

### ***Saneamenduaren bigarren zatia***

#### ***egiteko proiektua onartu da.***

Bigarren zatia egiteko proiektua onartu den arren, oraindik zehaztu gabe dago lanak hasteko data. Zati hau aurrekoaren jarraipena da eta Bengoetxen hasiko da. Hortik Erosuene azpitik pasako da Amezti Zahar baserriaren azpiraino han jarriko baita pompaketa egiteko estazioa. Honi esker, Tximistarri bidera ailegatuko da eta handik Kristobal Balentziaga errepideraino bidaliko da.

87 milioi pezetako aurrekontua du eta zati hau eta ondoren egongo den hirugarren bat bukatzerakoan, Igeldoko hegoaldean dauden etxe gehienak, %95a saneamendu sare honekin lotuta egongo dira teknikoaren esanetan.

## **Lan itsuragabea frontoian egindakoa**

Hori da hori desastrea, gauza askotan igeldotarrok ez gatoz bat baina frontoian egindakoarekin inor ez dagoela gustora ez dago ukatzerik, aho batez onartzen da egindakoa itsuragabea dela.

Frontoia estali da eta ura lehen bezala sartzen da. Aurreko hormaren ondoko hormatik zehar goiko aparkalekuko ura sartzen da eta errebote ondoko estolda ere trabatuta jarraitzen duenez putzuak egingo dira.

Harmailak ez dira konpondu eta argia ordu jakin batzuetan bakarrik pizten da, 9:30 etatik 12:00 arte gutxi gora behera. Gainera errebotea lehen bezala utzi da, okerra eta altura gutxikoa, eta pilotek erraz egiten dute ihes. Eta hau egiteko 30 miloi pezetatik gora gastatu dira.

Herri Kontseiluak hau guztia kritikatu du bai Udaleko agintari, arduradun eta zenbait


komunikabideen aurrean eta soluzioak eskatu ditu.

1.- Egin beharrekoa egin dezatela baina horrela ez dago frontoia uzterik. Lizardi zein errebote aldetik ura sar ez dadin zerbait egin behar da eta Herri Kontseilutik ere ideiak prestatzen ari gara Udaleko teknikoei planteatzeko.

2.- Harmaila berriak egin behar dira. Lehen proiektatuta zegoen, aldegelak bertan egitea. Herri Kontseiluak planteatzen du aldegelak plazako labadero zaharrea jartzea eta harmaila azpia hutsa utzi tresneria sartzeko. Begiratzen ari gara beste irtenbide batzuk, jarri eta jaso daitezkeen harmailak eta abar.

3.- Ate bat jarri haurrak atera ez daitezen errepidera.

Gai horri jarraipen zehatza egingo zaio.



### ***Uholdeak***

Hilaren 1ean, igandean izandako euri jasa izugarriaren ondorioz kalte ugari izan da Igeldoko hainbat etxe eta bideetan. Astearte iluntzean bilera bat egin zen Itsas-Aurren guzti honi buruz hitzegiteko. 70 pertsona ebildu ziren bertan. Han bildutakoen artean idatzi bat prestatu zen udaletxera bidaltzeko. Ea kalteak lehen bait lehen konpontzen diren!

### ***Musean partehartze ona***

Ohiturari eutsiz, urte hasieratik maitza bitartean mus txapelketa egon da astero. Hasiera batean, ostiralero eta azken hiru asteetan larunbatero. Jende asko animatu da aurrean ere eta balantzea oso positiboa da, jendeak gustura hartzen baititu mus txapelketak eta Donostiatik zein beste herrietatik etorritako jende kopurua ere kontutan hartzekoa da. Lapa sariko hiru larunbatetan ehun bikote baino gehiagok izena eman zuten.

### ***Autobus linea berria goizeko 9:00 etan***

Azkenik, igeldotarron azpaldiko eskaera bat bete da eta goizeko 9:00 etan autobus zerbitzua dago. Maiatza hasieran jartzekoa zen baina azkenean, 26ean jarri dute martxan.

Zerbitzu berri honek, aldatu egingo du lehen orduko autobusen ordutegia. Eguneko lehen autobusa Bulebarretik 6:45 tan atera beharrean 7:00 tan aterako da eta berdin 7:45 takoarekin. Aldaketa hau Tranbia Konpainiako arduradunek jarritako baldintza izan da ezinezkoa baitzen beren ustez, aurreko bi lineak lehenengo ordutegian mantentzea.

Herri Kontseiluak lehenengo bi autobus horiek maiztasunez erabiltzen dutenei iritzia eskatu eta gero, onartu egin zuen aldaketa. Bestalde aipatu, aurreko urteetan bezela, udako ordutegia berezia izango dela eta ordu erdiro izango ditugula autobusak.

### ***Herri Kontseiluko anagrama.***

Azkeneko orri informatiboan esan genizuen bezala Herri Kontseiluaren anagrama aukeratzeko lehiaketa antolatu zen. Hiru pertsonek aurkeztu zituzten lanak. Aukeratu den anagrama orri informatibo honen azalean dagoena da.

## **HERRI BATZARRA**

EGUNA: Ekainak 15

ORDUA: Goizeko 11:15tan

LEKUA: Itsas-Aurre etxean

GAIAK:

- **Igeldoko Kaskoa: etxebizitzak.**

- **Frontoia.**

- **Alkantarilak.**

- **Uholdeak**